

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

Gazteentzat egokitutako bertsioa



haurren alde bat egin ezazu

unicef 

BA AL DUZU HAUR GUZTIEN ESKUBIDEEN BERRI?



Ba al zenekien haur guztiek dituztela eskubideak?...

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak 18 urtetik beherako haur eta gazte guztien eskubideak biltzen ditu. Eskubideek betebeharrak eta erantzukizunetik lotura estua dute; bestela esanda, artikulua nahitaez bete behar dira, eta nahitaezotasun hori gobernu guztiei zein pertsona guztiei dagokie. Hitzarmenak oinarrizko lau printzipio ditu, hala nola: diskriminaziorik eza, haurren interes gorena, bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea eta parte hartzeko eskubidea. Eskubide guztiek dute garrantzi berbera.

UNICEFek egiten duen

lana haurrei bizi hasierarik onena ematera bideratuta dago; bizirauteko eta erabat garatzeko aukera izan dezaten laguntzera; eskolara joan daitezten lortzera; haur eta gazte guztientzat eremu babestuak sortzen laguntzera, batez ere larrialdietan; eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena osatzen duten 54 artikulua betetzera.

Baina badugu zer egina Haurren Eskubideak betetzeko... Zer eskubide betetzeko eman dezakezu zuzeneko laguntza? Zure ustez, errespetatzen al dira eskubide horiek zure etxean, zure auzoan, zure herrian, zure herrialdean,... munduan?



Sareratuko al zara? Sareratu UNICEFekin programa

Munduan hobetu litezkeen gauzak daudela uste duzu? Ingurumenak, bakeak, kulturak eta pertsona guztien errespetuak kezkatzen zaituzte? Haurren eskubideak jende guztiak ezagutu eta errespetatzea nahi duzu? Tarteka galdera horiek bururatzen bazaizkizu, hauxe da zure webgunea. **www.enredate.org** sarean duzun elkartasunaren inguruko ataria da. Mundu osoko haur eta gazteekiko konpromisoa hartuta osatzen dugun komunitatearen elkargunea da, mundu hobearren alde egitearren... bat egiteko dugun eremua. Sareratua izateak komunitate solidario honekin bat egitea esan nahi du, mundu osoko haurren eskubideen defentsa eta sustapenarekiko konpromisoa duen komunitatearekin bat

 **enredate.org**

egitea; gure inguruan gertatzen denari adi egotea eta arlo horretan jokatzeko esan nahi du, gizartea aldatzeko mobilizatzea.

www.enredate.org gazteek gazteentzat egindako webgune bat da batez ere; baina hezitzaileentzat ere bada. Munduan gertatzen diren gauzak ulertzeko eta ezagutzeko tokia da, baita kezkatzen gaituzten alderdien inguruan jokatzekoa ere.

Halaber, hainbat sorpresa topatuko duzu bertan, hala nola jokoak, bideoak, kanpainak, etab. Izan ere, parte hartzea dibertigarria ere bada.

Gogoan izan:
zure iritzia ere garrantzizkoa da!

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA:

zer

ZER DEN HITZARMENA

“Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena” Nazio Batuen itun bat da, baita haurren eskubideei buruz “juridikoki loteslea” den lehen nazioarteko legea ere. Hortaz, nahitaez bete behar da. Eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak biltzen ditu, eta mundu osoko haur eta gazteok izan ditzakezen egoera guztiak ditu kontuan. Hitzarmenak 54 artikulua ditu. Artikulu horiek garrantzi handiko adierazpena biltzen dute, alegia 18 urtetik beherakook erabateko garapen fisiko, mental eta sozialerako nahiz zuen iritziak askatasunez emateko eskubidea duzuela. Horrez gain, Hitzarmena gizarte osoak osasuna izateko, bizirauteko eta aurrera egiteko eredia da.

zertarako

ZUEN BABESA ETA GARAPENA BERMATZEKO

Hainbat eta hainbat herrialdetan zuek babesten zaituzten legeak dituzten arren, toki askotan ez dituzte lege horiek betetzen. Horren ondorioz, haur eta gazteok —batez ere baztertuta dauden eta gutxiengoa diren taldeek— sarritan egoera latzetan bizi behar izaten dute, pobrezian, etxerik gabe, babes juridikorik gabe, hezkuntza jasotzeko aukerarik gabe, abandonu-egoeran, prebenitu daitezkeen gaixotasunak dituztela, etab. Arazo horiek ez dira herrialde pobreetan soilik gertatzen; batzuetan herrialde aberatsetan ere gertatzen dira. Hitzarmenak argi eta garbi hartzen du aintzat haur OROK —ez soilik hainbat pribilegiatuk— bizi-maila egokirako duen eskubidea.

FUNTSEZKO BOST GALDERA

noiz

1989ko AZAROAREN 20an

1959an, Nazio Batuek “Haurren eskubideei buruzko Adierazpena” onartu zuten. Adierazpen hark 10 printzipio bildu zituen. Baina ez zen nahikoa zuen eskubideak babesteko, ez baitzen legez nahitaez bete beharrekoa. Horregatik, 1978an, Poloniako gobernuak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmen baten behin-behineko bertsioa aurkeztu zion Nazio Batuen Erakundeari. Azkenean, mundu osoko gobernuekin, buruzagi erlijiosoekin, GKEekin eta beste hainbat erakunderekin hamar urtez negoziatzen jardun ondoren, “Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena” izeneko itunaren azken testua adostea lortu zen 1989ko azaroaren 20an, hitzarmena sinatuko zuten herrialde guztientzat nahitaez bete beharra ezarrita. 1990ean, Hitzarmena lege bihurtu zen, 20 herrialdek —Espainiak besteak beste— sinatu eta onartu ondoren. Gaur egun, munduko herrialde guztiek onartua dute, bik izan ezik (Somalia eta Estatu Batuak).

non

NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA

Nazio Batuen helburua munduko nazio guztiak bakearen eta garapenaren alde lan egiteko batzea da, betiere lan hori justiziaren, giza duintasunaren eta herri guztien ongizatearen printzipioetan oinarrituta. Era berean, herrialdeen arteko harremanak orekatzeko aukera ematen du. Nazio Batuen egoitza New Yorken dago, baina orubea eta eraikinak nazioarteko lurraldetzat hartzen dira. Nazio Batuek bandera, posta eta zigilu propioak dituzte, herrialde bat izango balira bezala: denon herrialdea. 6 hizkuntza ofizial erabiltzen dituzte: arabiera, txinera, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta errusiera. Batzar Nagusia da Nazio Batuen eztabaida-organo nagusia; hantxe onartu zen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Batzar horretan Nazio Batuetako kide diren 191 herrialdeak daude ordezkaturak.

nork

UNICEF

UNICEF “Haurrentzako Nazio Batuen Funtsa” da eta helburu hau du: batetik, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean onartutako eskubideak sustatzea eta babestea, eskubide horiek edonon defendatuz; eta, bestetik, mundu osoko haur eta gazte guztien ongizaterako laguntza ematea. Nazio Batuen agentzia bat denez gero, UNICEFek egiten duen lana hurrei bizi hasierarik onena ematera bideratuta dago; haur eta gazteek bizirauteko eta erabat garatzeko aukera izan dezaten laguntzera; eskolara joan zaitezten lortzera; haur eta gazte guztientzat eremu babestuak sortzen laguntzera, batez ere larrialdi-egoeretan; eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena osatzen duten 54 artikulua betetzera. Jakin nahi al duzu artikulua horiek zeintzuk diren?

01

1go ARTIKULUA

HAURRAREN DEFINIZIOA

Hitzarmena 18 urtetik beherako adina duten pertsona guztiei aplikatzen zaie.



6. or.

02

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

2. ARTIKULUA

DISKRIMINAZIORIK EZA

Haur guztiek dituzte Hitzarmenean bildutako eskubide guztiak: ez du axola nongoa zaren, zer sexutakoa zaren eta zer azal-kolore duzun, zer hizkuntza hitz egiten duzun, zure familiak zer egoera ekonomiko duen, zer sinesmen dituzuen zuk eta zure gurasoek, ezta minusbaliotasunen bat duzun ere.

www.enredate.org

03

3. ARTIKULUA

HAURRAREN INTERES GORENA

Agintariak edo helduek zurekin zerikusia duten erabakiak hartzen dituztenean zure garapenerako eta ongizaterako onena dena egin beharko dute.



04

4. ARTIKULUA

ESKUBIDEEN APLIKAZIOA

Gobernuek (eta tokiko nahiz eskualdeko agintariak) Hitzarmenean bilduta dauden eskubide guztiak betearazi behar dituzte. Zure familiari zure eskubideak bermatzen lagundu behar diote eta, horrez gain, beste herrialde batzuekin lankidetzan aritu behar dute haurren eskubideak mundu osoan bete daitezzen.



05

5. ARTIKULUA

GURASOEN ORIENTABIDEA

Agintariak zure gurasoak eta zure hezkuntzaren ardura duten pertsona guztiak errespetatu behar dituzte. Zure familiak lagundu egin behar dizu zure eskubideak gauzatzeko.



8. or.

06

6. ARTIKULUA

BIZIRAUPENA ETA GARAPENA

Haur guztiak dute bizitzeko eskubidea. Gobernuak ahal den guztia egin behar dute zure biziraupena eta garapena bermatzeko.

07

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

7. ARTIKULUA

IZENA ETA NAZIONALITATEA

Jaiotzean erregistro batean inskribatua izateko eta izen bat eta nazionalitate bat edukitzeko eskubidea duzu, baita zure gurasoak ezagutzeko eta haien zaintza jasotzekoa ere.



08

8. ARTIKULUA

IDENTITATEA

Agintarien betebeharra da zuen identitatea, izena, nazionalitatea eta familia-harremanak babestea.

09

9. ARTIKULUA

GURASOENGANDIK BANANTZEA

Ez da haurrik bere gurasoengandik banandu behar, bere hobe beharrez ez bada. Zure gurasoak bananduta badaude biekin harremanetan egoteko erraztasunerako eskubidea duzu.

10

HAURREN
ESKUBIDEEI
BURUZKO
HITZARMENA

10. ARTIKULUA

FAMILIA EKARTZEA

Edozein egoeraren ondorioz zu herrialde batean eta gurasoak beste batean bizi bazarete, zure gurasoak dauden herrialdean sartu eta haiekin elkartzeko eskubidea duzu, edo zure gurasoak zurekin elkartzekoa.

11

11. ARTIKULUA

LEGEZ KANPOKO ATXIKITZE ETA LEKUALDAKETAK

Agintariek saihestu egin behar dute inork beste herrialde batera legez kanpo eraman zaitzan edo legez kanpo atxiki zaitzan.





12

12. ARTIKULUA

HAURREN ETA GAZTEEN IRITZIA

Zure iritzia emateko eskubidea duzu, baita iritzi hori kontuan hartua izatekoa ere helduek zuri eragiten dizun erabaki bat hartu behar dutenean. Zure iritzia entzutean zure adina eta heldutasun-maila izango dute kontuan.

www.enredate.org

13

13. ARTIKULUA

ADIERAZPEN ASKATASUNA

Zure iritzia askatasunez adierazteko eskubidea duzu, baita era guztietako informazioak eta ideiak jaso eta zabaltzekoa ere, baldin eta zure adierazpenek beste pertsona batzuen eskubideak urratzen ez badituzte.



11. or.

14

14. ARTIKULUA

KONTZIENTZIA, ERLIJIO ETA PENTSAMENDU ASKATASUNA

Agintariek zure pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna errespetatu behar dute. Zure gurasoek aholkuak eman ahal izango dizkizute hoberena zer den jakin dezazun.



15

15. ARTIKULUA

ELKARTZEKO ASKATASUNA

Askatasunez elkar zaitezke, elkarteak sor ditzakezu eta beste neska-mutilekin modu baketsuan bilerak egin, betiere jarduera horiek beste pertsona batzuen eskubideak urratzen ez badituzte.



16

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

16. ARTIKULUA

INTIMITATEAREN BABESA

Bizitza pribatu propiorako eskubidea duzu, zure familiaren bizitza pribatua errespetatua izan eta zuen etxebizitzako intimitatea gordetzeko; eskubidea duzu inork zure korrespondentzia ireki ez dezan eta inork zure izen onari eraso egin ez diezaion.

17

17. ARTIKULUA

INFORMAZIO EGOKIA ESKURATZEKO AUKERA

Informazioa jasotzeko eskubidea duzu, batez ere zure ongizaterako eta garapenerako garrantzia duen informazioa, eta liburu eta egunkarien bitartez, nahiz irratiz, telebistaz eta internetez jaso dezakezu. Helduak informazio hori egokia izan dadin arduratuko dira.

18

18. ARTIKULUA

GURASOEN ERANTZUKIZUNAK

Zure gurasoek dute zure hezkuntzaren eta garapenaren erantzukizuna eta zure interesa aintzat hartuta jardun behar dute. Agintariak zeregin horietan lagunduko diete eta, beharrezkoa denean, sostengua emango diete.



19

HAURREN
ESKUBIDEEI
BURUZKO
HITZARMENA

19. ARTIKULUA

TRATU TXARREN KONTRAKO BABESA

Agintariek tratu txarretatik, abusetatik eta indarkeriatik babestu beharko zaituzte, baita zure gurasoek edo legezko arduradunek eragindakoetatik ere.



14. or.

20

20. ARTIKULUA

FAMILIARIK GABEKO HAURREN BABESA

Babes eta laguntza berezietarako eskubidea duzu, gurasorik ez baduzu edo gurasoak zurekin ez badaude. Laguntza hori zure jatorri kultural edo etnikoa kontuan hartuta emango zaizu.

www.enredate.org

21

21. ARTIKULUA

ADOPZIOA

Adopzioaren kasuan haurraren ongizatea izan behar da beti kontuan, beste ezeren gainetik.



22. ARTIKULUA

HAUR ERREFUXIATUAK

Haur eta gazte errefuxiatuek (gerra edo beste edozein egoera tarteko beren herrialdetik alde egitera behartu badituzte) babes berezia jasoko dute. Agintariak haur horiek zaindu eta babesten dituzten erakundeekin lankidetzan ariko dira.

22

23

23. ARTIKULUA

MINUSBALIOTASU- NEN BAT DUTEN HAURRAK

Minusbaliotasun fisiko edo mentalen bat baduzu, zure hezkuntza eta gaikuntza bermatzeko zaintza eta arretarako eskubidea duzu, bizimodu betea izan dezazun laguntzarren.



24

24. ARTIKULUA

OSASUNA ETA OSASUN-ZERBITZUAK

Ahalik eta osasun-mailarik handiena izateko eskubidea duzu (edateko ura, higiena eta elikadura egokiak barne), baita gaixorik zaudenean arreta medikoa jasotzekoa ere. Gobernuak beste herrialdeetako gobernuekin lankidetzan jardun beharko dute eskubide hau mundu osoan gauza dadin.

25

HAURREN
ESKUBIDEEI
BURUZKO
HITZARMENA

26. ARTIKULUA

GIZARTE SEGURANTZA

Bai zuk, bai zure familiak gobernuak eta gizarte-segurantzak ematen dituzten laguntzen onura jasotzeko eskubidea duzue, baliabide urriak baldin badituzue.



27

25. ARTIKULUA

BARNERATZE BALDINTZAK

Zu babesteko edo gaixotasun fisiko edo mental bat sendatzeko establezimenduren batean barneratuta bazaude, zure egoera aldi behin berrikusi beharko da, barneratzea egokia dela eta behar baino gehiago luzatuko ez dela egiaztatzeko.



26

27. ARTIKULUA

BIZI-MAILA

Zure garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozialerako egokia den bizi-maila izateko eskubidea duzu. Zure gurasoek dute duintasunez bizi zaitezen behar duzun guztia izan dezazun erantzukizuna (bereziki etxebizitza, mantenua eta arropa). Haiak eman ezin badizute, agintariek lagundu egin beharko diete.

28

28. ARTIKULUA

HEZKUNTZA

Hezkuntzarako eskubidea duzu. Lehen hezkuntzak nahitaezkoa eta doakoa izan behar du, eta bigarren hezkuntzan jarduteko edo unibertsitatera joateko erraztasunak izan behar dituzu. Herraldeetako gobernuek eskubide hau mundu osoan gauza dadin lan egin behar dute. Eskolako zigorrak ez dira iraingarriak izango, ezta laidogarriak ere.

29

29. ARTIKULUA

HEZKUNTZAREN HELBURUAK

Hezkuntzak zure nortasuna, gaitasunak eta ahalmen mental eta fisikoak ahal duzun gutxia garatzera bideratuta egon beharko du. Gizarte librean besteekin errespetuz jokatzeko, arduratsua, bakezalea izateko eta ingurumena errespetatzeko prestatu behar zaitu.



18. or.

30

HAURREN
ESKUBIDEEI
BURUZKO
HITZARMENA

30. ARTIKULUA

GUTXIENGO ETNIKO EDO ERLIJIOSOAK

Gutxiengo etniko edo erlijioso batekoa bazara, zure kulturaren arabera bizitzeko, zure erlijioa praktikatzeko eta zure hizkuntza hitz egiteko duzun eskubidea errespetatu behar zaizu.

31

31. ARTIKULUA

AISIALDIA ETA KULTURA

Jolasteko, atsedean hartzeko eta olgeta- eta kultura-jardueretarako eskubidea duzu.

32

32. ARTIKULUA

HAURREN LANA

Zure osasunerako arriskutsuak diren edo eskolara joatea eragozten dizuten lanetatik babestuta egoteko eskubidea duzu. Ezin duzu lanik egin gutxieneko adina bete arte eta, lan egiten baduzu, baldintza egokiak bete beharko dira, ordutegiari eta lan-baldintzei dagokienez



33

33. ARTIKULUA

LEGEZ KANPOKO DROGEN ERABILERA

Legez kanpoko drogetatik eta droga-trafikitik babestuta egoteko eskubidea duzu.

34

34. ARTIKULUA

SEXU-ESPLOTAZIOA

Agintariek sexu-esplotaziotik eta sexu-abusuetatik babestu behar zaituzte, prostituzioa eta ikuskizun edo material pornografikoetan parte hartzea barne.

35

HAURREN
ESKUBIDEEI
BURUZKO
HITZARMENA

35. ARTIKULUA

HAURREN SALMENTA ETA BAHIKETA

Gobernuek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte haurren salerosketa eta bahiketa eragozteko.

36

36. ARTIKULUA

BESTELAKO ESPLOTAZIO MOTAK

Zure ongizaterako kaltegarriak diren bestelako esplotazio mota guztietatik babestuta egoteko eskubidea duzu.

20. or.



www.enredate.org



38

38. ARTIKULUA

GATAZKA ARMATUAK

Gerra-garaietan ezin izango zaituzte soldadu aritzeko erreklutatu eta ezin izango duzu borroketan parte hartu. Gatazka armatuetan haurrok babes bereziko eskubidea duzue.

37

37. ARTIKULUA

TORTURA ETA KARTZELA

Ez dizute torturarik egingo edo bestelako tratu edo zigor krudelik emango. Delitu bat egin baduzu ez dizute heriotza-zigorrik ezarriko, ezta biziarteko kartzela-zigorrik ere. Epaitu eta erruduntzat hartzen bazaituzte, beste aukerarik ez badago baino ez zaituzte establezimendu batean barneratuko eta, betiere, zure zigorra betetzeko gutxieneko denboraz. Ez zara inoiz helduen kartzela berean egongo eta zure familiarekin harremanetan egoteko eskubidea izango duzu.





40

HAURREN
ESKUBIDEEI
BURUZKO
HITZARMENA

40. ARTIKULUA

JUSTIZIA ETA ADINGABEAK

Berme guztiez defendatzeko eskubidea duzu delitu bat egin izana leporatzen dizutenean. Epaile eta abokatuek kontu bereziz jardungo dute 18 urtetik beherako pertsonak epaitzen dituztenean, eta legeek gutxieneko adin jakin bat ezarri behar dute adin horretara iristen ez direnak helduak balira bezala epai ez ditzaten.

39

39. ARTIKULUA

SUSPERTU ETA BIRGIZARTERATZEA

Tratu txarrak, esplotazioa edo abandonua jasan badituzu, edo gerra batean egon bazara, fisikoki, moralki eta psikologikoki suspertzera bideratutako arreta jasotzeko eskubidea duzu.

22. or.





42

42. ARTIKULUA

HITZARMENAREN HEDAPENA

Hitzarmen honetan bildutako eskubideen berri izateko eskubidea duzu. Gobernuak haurren, gazteen eta helduen artean hedatzeko betebeharra dute.

41

41. ARTIKULUA

LEGERIK ONURAGARRIENA

Zuri dagokizun kasuren batean Hitzarmenaz kanpo beste lege batzuk aplika badaitezke, zuretzat onuragarriena den legea aplikatuko da.

www.enredate.org

43-54

43tik 54ra BITARTEKO ARTIKULUAK

43.etik 54.era bitarteko artikuluetan, gobernuak eta nazioarteko erakundeak —UNICEFek esaterako— aurreko eskubideak bete daitezten lankidetzan nola jardun behar duten azaltzen da. Artikulu horietan ez da eskubide gehiago biltzen; horregatik ez dira bertsio labur honetan agertzen.

23. or.

ITZULPENERAKO DIRU-LAGUNTZA:



MAKETATZEKO DIRU-LAGUNTZA:

